

# SECURING

JAIRO TOURIÑÁN || JUDITH ATAUN || ANDER AJURIA || JOSU GONZÁLEZ  
LOS HERRÁN IKASTETXEA

BATXILERGOKO 1. MAILA. 2019-2020 IKASTURTEA

*“Segurtasuna bermatzeko produktua”*



PRODUKTUAREN DISEINU EZ FINALA

## 1.BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure produktua eraztun bat da eta bere funtzioa kaleetan segurtasuna finkatzea da. Beraz, pertsonen segurtasuna bermatzeko produktu bat da eta gizartean dauden delituak salatzen aukera gehiago ematen ditu, gizartean gertatzen diren lapurretak, liskarrak eta indarkeria kasuak geldiarazten lagunduz.

Eraztuna bereziki emakumeentzat bideratuta dago, bizi garen gizarte honetan oraindik indarkeria gehiegi pairatzen dutelako (ikusi grafikoa). Aurten emakumeen kontrako indarkeria oso handia izan da. Espainiako Ministerioaren datuen arabera, ikusi dezakegu uztailean zenbaki hauek pila bat igo egin direla, esate baterako 10 emakume hil egin zituzten. Datu horietaz gain, erasotutako izan diren emakumeen datuak ere kontutan hartu beharko genituzke. Erasoen inguruko datu errealak jasotzea zailagoa da, neska batzuk salatzen dutelako, baina ez dutenak salatzen ez daude erregistratuak.

Honez gain, beste motatako eraso edo mehatxuak jasotzen dituzten pertsonak ere erabil dezakete gure eraztuna. Izan ere, arrisku egoeran dauden pertsona guztien segurtasuna bermatzea du helburu. Beraz, eraztuna pertsona guztientzat eskuragarria da. Adibidez, eskolta pribatuak dituzten politiko asko daude eta gure eraztunarekin gastu ekonomiko hori saihestu ahal izango dute. Beste adibide bat jartzearren, adin handiko pertsonak dira. Norbanako hauek lapurketei aurre egiteko gaitasun fisiko gutxiago izan ditzakete, eta beraz, kasu hauetan ere gure eraztuna interesgarria izan daiteke, laguntza eskatu eta lapurra ahalik eta azkarren harrapatzeko.

Produktuaren diseinuari dagokionez, "sello" motako eraztun diskretu bat da. Eraztunaren barnean, bateria, GPS sistema eta mikrofono txiki bat dago. Kanpoaldean berriz, bi etengailu daude egoera mota guztietan pizteko errazak direnak. Etengailuaren bidez zure kokapena bidaltzen da poliziarri eta behin etengailua aktibatzean mikrofonoa pizten da eta inguruko soinu guztiak bildu eta bidali egiten ditu.

Behin gure eraztuna merkatuan finkatzean, bezeroen beharrei erantzun bat emanez etengabe hobetzeko asmoa dugu. Eraztunaren pertsonalizazioa errealitate bat bihurtuko da baina gure funtsezko helburua erabilgarria izatea da.

Merkatuan ez dago beste produkturik gure eraztunak egiten dituen funtzio guztiak betetzen dituen. Merkatuan gure eraztunak egiten dituen funtzioak bezalako beste produktu batzuk egon badaude, baina ez guztiak batera. Adibidez GPS-ak eta mikrofonoak daude, zeregin hori egiten dutenak bakarrik, guk aldiz, funtzio horiek bateratzen dituen produktua sortu dugu. Gainera, gure enpresa energia berriztagarrien alde dago: Gure makinek erabiltzen duten energia, eraikinaren teilatua dauden eguzki plaketatik ateratzen dugu eta soberakinak birziklatzen ditugu.



